


Jaialdia
**Fantasiakzko eta
Beldurrezko
Zinemaren Astea**

20

DK
memoria

24





Ilustrazioa / Ilustrador: Sempere



Alex de la Iglesia, kartelaren aurkezpena

Jaialdia FANTASIAZKO ETA BELDURREZKO ZINEMAREN ASTEA

35. Astea (urriak 25-azaroak1) berriro izan zen fantasiako eta beldurrezko nazioarteko zinemarik onenaren erakusleihoa. Kalitate eta aniztasun jaia, proiektioetara **11.318 ikusle** erakarri zituen (2023ko edizioan baino gehixeago); gainera, **9.735** lagunek hartu zuen parte aldi berean antolatu ziren jardueretan (iazko antzerako kopuruak).

Argi geratu da berriz ere euskal zinemak indarra duela; hala, inaugurazioko filma (**Daniela Forever**, **Nacho Vigalondo** zuzendariarena) zein itxierakoa (**Una Ballena**, **Pablo Hernandez**) kalitatezko **euskal ekoizpenak** izan ziren, eta Estatuko generoan ez-ohiko proposamenak. Eta ezin ahaztuko dugu beste film bat, sail ofizialean, **Galder Gaztelu-Urrutiak** zuzendutako **Rich Flu**.



Nacho Vigalondo & Aura Garrido, inaugurazioa



Halloween Gaua



Donostia Ghoul

Álex de la Iglesia euskal maisuak egin zuen jaialdiaz gozatzeko deia; poster ofizialaren protagonista izan zen, **Franz Kafkaren** heriotzaren ehungarren urteurrenean idazlea eta haren **Metamorfosis** omentzen zituena. Halaber, sendotu egin zen **euskal film laburren** saila, 2023an abiarazi zutena; lehenengo aldiz, EITB lanik onenari eskaintzen dion saria eman zen. Nabarmentzekoa da, bestalde, **Planetagatik** film laburraren estreinaldia, Donostia Kulturaren euskal sorkuntzarako **Oihua** ekimenaren hirugarren edizioari esker sortua (Euskara Atalarekin eta Gipuzkoa Film Comission bulegoarekin batera).



Animedon aurkezpena

Aurtengo berritasun nagusia izan zen gelditzeko etorri den sail berri bat sortu dela: **Animedon**. Japoniar animaziozko ikus-entzunezko produkzioak estreinatzeko espazio bat, jarduera osagarri ugari dituen (hitzaldiak, tailerrak, erakustaldiak...), eta publiko berriak sortzera bideratuta dagoena, publiko gaztea batez ere. Hasiera bikaina izan zuen sailak, **Dragoi Bola** telesail mitikoari egin zitzaion omenaldi jendetsuarekin. **Akira Toriyama** sortzaileari ere omenaldia egin zitzaion, erakustaldi kolektibo batean.



Dragoi Bola

Stephane Levallois frantziar artista kontzeptualaren lanak eta **Goya-Hellboyren** unibertsoek, eta **Nacho Fernández** eta **Josean Olabe** istorio-sortzaileen proposamenek osatu zuten erakusketen zerrenda.



Goya-Hellboy erakusketa, Stéphane Levallois